



3.4.1. AZPIPROIEKTUA: HIZKUNTZA ARGIA ETA IRAKURKETA ERRAZA, ZERBITZU PUBLIKOEN ERABILGARRITASUNA HOBETZEKO

ZERGATIK PROIEKTU HAU?

Zerbitzu eta prozedura publikoetan **komunikazio argia** bultzatzea du proiektu honek. Izan ere, komunikazioa argia denean, herritarrek **erraz aurkitu dezakete** behar duten informazioa, hura **zailtasunik gabe uler** dezakete eta **jakinaren gainean egonda har ditzakete beren erabakiak**. Hartu beharreko erabakiek herritarren bizitzetan ondorio garrantzitsuak dituztenean, informazio argia izatea herritar horien eskubide bat da. Horregatik, testuak idazterakoan hartzaileen larruan jarri behar da eta aintzat hartu haien premiak, interesak, ezaugarriak...

Arreta berezia eskaini behar zaio erakunde publikoek zenbait kolektiborekin izaten duten komunikazioari: aniztasun funtzionala dutenekin (arazo kognitiboak), edadetuekin, immigranteekin, eta abar.

Hizkuntza argiaren teknikak aplikatzeko, borondate irmoa izateaz gain, **prozesua profesionalizatu** beharra dago, eta, horretarako, teknikak eta jarraibideak dakizkiten adituen partaidetza behar da.

AURREKARIAK

Pilotu-jarduera, 2017an egina, beren kargura seme-alabak dituztenentzako laguntzen programaren barruan:

[Eusko Jaurlaritzak abian jarri du "Irakurketa Erraza"-ren aurreneko proiektua euskadi.eus web orrian](#)

HELBURUAK

- Lan-talde bat osatzea, prestakuntza-ekintza programa baten bidez, komunikazio argia bultzatzeko eta Euskadi.eus webgunean argitaratzen diren zerbitzuen edo programen erabilgarritasuna hobetzeko (hizkuntza administratiboa erraztu, eta, hala badagokio, irakurketa errazeko teknikak erabili), arreta bereziki jarri aniztasun funtzionala duten taldeetan (eremuak: immigrazioa, edadetuak, irakurtzeko edo ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonak: ezintasun kognitiboa).
- Oinarria edo pilotu bezala erabilgarria izatea, prestakuntza/ekintzaren dinamika pixkanaka zabaltzeko, Euskadi.eus webgunean argitaratutako zerbitzuen erabilgarritasuna hobetze aldera (herritarrentzat orokorrean bideratutako zerbitzu eta programa guztietarako).

HONA PILOTU-PROBAKO ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:

- Lanbide
- Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Familia Politikarako eta Aniztasunerako Zuzendaritza
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritz.



- c) Prestakuntza eta tutoretza: aniztasun funtzionala duten kolektiboentzat irakurketa errazeko bertsio berezia egiteko prozesua betetzeko teknikei buruzko prestakuntza; eta aurreko a) fasetik ondorioztatzen den zerbitzuaren edo programaren irakurketa errazeko bertsioa lortu arte egin beharreko egokitzapenaren gaineko tutoretza.
- d) Argitaratu beharreko testuak egokitzeko prozesuaren momenturen batean (agian lehenengo proposamena egin ostean), saiaturik da hartzaileak diren kolektiboetako kideen parte hartzea lortzen. Horren helburua da testuak ondo ulertzen direla ziurtatzea, bai eta haien premiak hobeto asebetetzeko idarokitu ahal dizkiguten hobekuntzak sartzea ere. Hori eginez gero, azken produktua kalitate handiagokoa litzateke, eta legitimitatea emango lioke haren elaborazioari, eta, gainera, bultzatu nahi dugun berrikuntza publikoko beste helburu bat ere beteko litzateke, alegia: herritarrek parte hartzea zerbitzu publikoak taxutzen eta ebaluatzen.
- d) Euskadi.eus webgunean egokitutako zerbitzuetan eta egoitza elektronikoan argitaratzea. Kasu batzuetan, hizkuntza sinplifikatura egokitutako zerbitzu gisa, beste batzuetan irakurketa errazeko soilik, edo, hala balegokio, bertsio biak argitaratuko dira.
- f) Egindako jarduerak zabaltzea.

Ez dago egokitzen diren zerbitzu eta programa guztien irakurketa errazeko bertsio bat egiterik. Eta baliteke ere zerbitzu eta programa guztiek ezin egiterik egokitutako testuak erabiltzaileekin baliozkotzeko jarduerarik (kolektiboekin eta norbanakoekin).

3.4.2 AZPIPROIEKTUA (ESTANDARIZAZIOA ETA NORMALIZAZIOA)

Hizkuntza Argia eta Irakurketa Erreza izeneko 341 azpi-proiektua garatu ahala berriz jarri da indarrean Agiriak Estandarizatzeko eta Normalizatzeko Taldea. Talde horrek parte hartu zuen jada aurreko Berrikuntza Publikoko Planean, Administrazioak sortutako dokumentuen ereduak estandarizatzen jarraitzeko. Kontua da hizkuntza argian izatea Euskadi.eus webgunean argitaratzen diren zerbitzuen fitxak, bai eta dagozkion prozedurak tramitatzeko sortzen diren ebazpenak ere (zuzentzeko errekerimendua, atzera egitekoa, laguntza ematekoa, laguntza ukatzekoa, laguntza aldatzekoa, eskubide bati uko egitekoa...)

Lan hori egiteko, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- Alde juridikoa; normalizazio-prozesuan sartzen diren sinplifikazio eta estandarizazioen baliozkotasun juridikoa.
- Agirien erabilgarritasuna eta administrazio-hizkera, gaztelaniaz nahiz euskaraz; bide elektronikoan, batez ere.
- Prozeduraren tramitazioaren ereduak: estandarizazio-prozesuaren ondorioz, prozedura tramitatzeko oinarritzko ereduak berrikusten eta eguneratzen ari da.
- Alde teknologikoa: kontuan hartu behar da, batetik, dokumentuen ereduak integratu egin behar direla zerbitzu elektronikoaren konfigurazioan eta, bestetik, dokumentuari txertatu behar zaizkiola zerbitzu elektronikoaren plataforma bateratuan eskuragarri dauden datuak, prozedura jakin



batetik datozen berariazko kudeaketa-aplikazioen negozioari buruzko beste datu batzuekin batera.

Horregatik guztiarengatik, hauek dira taldeko kideak:

- IVAPEko Administrazio Hizkeraren ataleko arduraduna eta teknikariak.
- Legelari bi; horietariko bat Kontrol Ekonomikoko Bulegokoa.
- Zerbitzu Elektronikoetako Unitateko teknikaria, zerbitzuen digitalizazio eta prozedurako arduraduna.
- EJIeko arduradun bat eta tekniko bat.
- Noizean behin, beken, laguntzen eta diru-laguntzen espedienteen izapidegileak.
- Hori guztia Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren proiektu bateko arduradun batek koordinatua eta bultzatua.

Gaur egun lanean hasi da erabiltzen diren dokumentu nagusien ereduak estandarizatzen, Hizkuntza Argia eta Irakurketa Erraza proiektuan parte hartzen duten programetarikoa batean. Hala, programa horretarako fitxak, formularioak, gidak...egokitzen ari dira, hizkuntza argiaren irizpideetan oinarrituz. Zehazki, pilotu gisa, dokumentu hauek egokituko eta aplikatuko dira: zuzentzeko errekerimendua, atzera egiteko errekerimendua, laguntza emateko ebazpena eta laguntza ukatzeko ebazpena.



ORAINGO EGOERA (2018KO APIRILA)

GAUZATUA

AURREIKUSPENA

ATAZA	2017								2018											
	mai atza	ekai na	uzta ila	abu ztua	irail a	urri a	azar oa	abe ndu a	urta rrila	otsa ila	mar txoa	apir ila	mai atza	ekai na	uzt ail a	abu ztu a	irail a	urri a	azar oa	abe ndu a
3.4.1 PROIEKTUA: HIZKUNTZA ARGIA ETA IRAKURKETA ERRAZA																				
Proiektua taxutzeko eta prestatzeko lanak.																				
Lantaldea eratzea.																				
Hizkuntza Argiako prestakuntza-materialak prestatzea (HA).																				
HA, 1. saioa (1. fitxa).																				
HA, 2. saioa (2. fitxa).																				
HA, 3. saioa (3. fitxa).																				
HA, 4. saioa (1. formularioa).																				
HA, 5. saioa (2. formularioa).																				
HA, 6. saioa (beste testu batzuk).																				
Egindako Hizkuntza Argiako fitxen proposamenen tutoretza.																				
Irakurketa errazeko modulua prestatzea (IE)																				
IE, 1. saioa.																				
IE, 2. saioa.																				
Irakurketa Errazeko proposamenak tutoretza.																				
Erkatzeko saioa erabiltzaileekin (kolektiboak eta norbanakoak)																				
Fitxak arian-arian argitaratzea																				
...																				
3.4.2 Dokumentuak estandarizatzea eta normalizatzea																				
Proiektua taxutzeko eta prestatzeko lanak.																				

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNU SAILA

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNU SAILA

Lantaldea eratzea.																			
Administrazioak sortutako agiriak estandarizatzea eta normalizatzea.																			
...																			

* Programa bakoitzak bere egutegia izango du.